



Arartekoaren 2014R-1188-13 ebazpena, 2014ko apirilaren 2koa. Horren bidez, Getxoko Udalarari gomendatu zaio (...) jatetxeak eragindako eragozpenak saihesteko beharrezko neurriak har ditzan, eta jarduera horri ingurumen arloko legedia lehenbailehen bete dezan eska diezaion.

Aurrekariak

1. Getxoko bizilagun batek adierazi duenez, ez dago udal esku hartzerik bere etxebizitzan etengabe pairatzen dituen zarata eragozpen larrien aurrean; eragozpen horiek bizilaguna bizi den eraikinaren behealdean kokatutako jatetxetik eratorritako irregulartasunek sortzen dituzte.

Zehazki esateko, azaldu duenez duela zenbait urtetik hona hainbat salaketa aurkeztu ditu udalean arrazoi ugari direla medio. Bere ustez, **zarata eta bibrazio eragozpen larriak** sukaldeko erauzgailuak sorrarazi ditu, baita kanpoaldean instalatutako **aire girotuak** eta **lokal guztian dagoen intsonorizazio maila baxuak, lokaleko sukaldetik eratorritako usaiek, leihoak zigitatuta ez egoteak, bidoiak modu irregularrean jarrita egoteak eta lokalaren kanpoaldean jesarleku bat egoteak ere**, horrelako erabileretarako nahitaezko baimena lortu gabe.

2. Argudiatu duenez, udaletxean aurkeztutako erreklamazioen haritik zenbait aldiz eskatu da lokalean antzemandako gabeziak zuzen ditzaten.

Hala ere, emandako epeak gainditu eta gero, jarduerak baldintza berdinetan funtzionatzen jarraitzen du, eta tokiko entitateak ez du inolako kontrolik egiten udal ebazpenetan ezarritakoa bete den ala ez egiaztatzeko.

3. Kexa aurkeztu duen pertsonak helarazitako oharrak ikusita, Ararteko erakundeak erabaki du kexa espedientea izapidetzea eta Getxoko Udalarari informazioa eskatzea, jarduera horren hirigintza eta administrazio egoeraren berri izateko.

Informaziorik jaso gabe denbora tarte bat igaro eta gero, erakunde honek errekerimendu bat bidaltzea beste aukerarik ez zuen izan, eta hala egin zuen 2013ko urriaren 10ean; ondoren, 2013ko azaroaren 28an, aipatutako dokumentazioa eskatzeko ohartarazpena igorri zuen.

4. Azkenik, 2013ko abenduaren 27an, udal dokumentazioa jaso genuen, antzemandako gabeziak zuzentzen saiatzeko bideratutako udal jardueren berri emanez.

5. Igorritako udal txostenak eta interesdunak berak emandako dokumentazioa aintzat hartuta, **ikusitako ahal izan dugu hasieran lokalak jarduera lizentzia lortu**



zuela Alkatetzaren 1988ko irailaren 28ko 946. zenbakidun Ebazpenaren bitartez.

6. Ondoren, **Alkatetzaren 1999ko urriaren 5eko Ebazpenaren bitartez**, lokalaren titulartasuna aldatzea baimendu zen. Hala ere, dirudienez, ez zen **sukalde erabilera** baimendu, ez eta **irekiera lizentzia** eman ere, jarduera legeztatzeko beharrezko baldintzak betetzen ez zirelako.
7. Jarduerak baldintza berdinetan funtzionatzen jarraitu zuen, eta handik bost urtera, tokiko entitatean jasotako lehendabiziko salaketan haritik, **2004ko uztailaren 15eko udal errekerimenduaren bitartez**, arduradunei eskatu zitzaieen berritze proiektu bat aurkez zezaten, sukalde erabilera baimendu ahal izateko eta jarduera behin betiko erregularizatzeko.
8. **Alkatetzaren 2005eko uztailaren 16ko 3606 Ebazpenaren bitartez**, legeztatze prozedurarekin jarraitzeko eskatu zen, eta obra lizentzia eman zen, lokalean zenbait hobekuntza lan egiteko, jarduera legedian eskatutako betekizunetara egokitzeko asmoz.
9. **2009. urtean** Getxoko Udalak berriz ere gogorarazi zuen jarduerak **modu irregularrean** funtzionatzen jarraitzen zuela. Horregatik, lokalaren funtzionamendua behin betiko arautzeko eta **osasun txostena lortzeko** eskatu zien titularrei berriz ere. Lehenago ezetsi egin zen, lokaleko sukaldean beharrezko eskakizun teknikoak betetzen zirela ez zelako egiaztatu.
10. Hala ere, orain arte azaldutakoa gorabehera, zenbait urte geroago, zaratak eragindako eragozpenen ondorioz aurkeztutako salaketan harira, **2012ko irailaren 27an** tokiko entitateak neurketak egin zituen kaltetutako etxebizitzan, eta lortutako immisio indizea 36,7 DB(A) izan zen. Ondorioztatu zenez, emaitza horiek aise gainditzen zituzten udal ordenantzan ezarritako gehienekoak, bai eguneko ordutegirako, bai gauetako ordutegirako. Horrez gain, lortutako L_{eq} T indize akustikoa 42 DB(A) izan zen. Horrek ere urriaren 19ko 1367/2007 EDk ezarritako mugak gainditu zituen.

Horrez gain, udaleko hirigintza diziplinaren arduraduna den aldetik, **2012ko urriaren 8an** udal arkitekto teknikoak sinatutako txostenak nabarmendu zuen aurreko emaitzek ez zutela betetzen indarrean zegoen araudia. Zehazki, honako hau adierazi zuen: *“tras revisar el expediente de dicha actividad se ha podido comprobar que a lo largo del tiempo ha tenido una serie de denuncias por los mismos problemas de ruidos generados en la cocina, la cual no cuenta con la correspondiente licencia de apertura, el cual fue parado por el propio interesado, en noviembre de 2009 por no presentar la documentación que se requería por el Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco. Por todo ello, el técnico que suscribe propone el precintado de la referida cocina por estar ocasionando continuadas molestias por ruidos en las viviendas superiores y hasta que no haya obtenido el correspondiente licencia de actividad y cumplidas todas las medidas que le sean de aplicación.”*



11. Aurreko txostenean azaldutakoaren haritik, **Alkatetzaren azaroaren 28ko 5624/2012 Ebazpenaren bitartez**, jardueraren titularrari agindu zitzaion hurrengo 15 egunetan sukaldean sortutako zaratak gutxitu zitzan, bertan egin beharreko jarduerak Zarata eta bibrazioen udal ordenantzan ezarritakoa betetzeko.

Horrez gain, azaldutako hori bete ezean beste inolako izapiderik gabe sukaldea zigilatu egingo zela ohartarazi zen.

Halaber, jarduera legeztatze prozesuari eusteko eskatu zen.

12. **2012ko abenduaren 26an**, jardueraren titularrek ziurtagiri bat aurkeztu zuten; horren bitartez egiaztatu zuten lokaleko sukaldean nolabaiteko neurriak hartu zituztela, eta erauzgailuaren zaratak desagerrarazi zituztela.

Hala ere, kaltetutakoaren etxebizitzan baimendutako gehienezkoak betetzen direla ziurtatzeko eskatutako neurketa ez zuten aurkeztu.

Horregatik, **otsailaren 14ko Alkatetzaren 579/2013 Dekretuaren bitartez**, berriz ere eskatu zen kaltetutako etxebizitzara transmititzen diren zaraten immisio indizea egiaztatzeko ziurtagiria aurkez zezaten, baita tartean aurkezteke zegoen osasun txostena ere. Nabarmendu zenez, azaldutakoa bete ezean sukaldea zigilatuko zela ohartarazi zen.

13. **2013ko otsailaren 26an** udal arkitektoak bigarren txostena eman zuten; horren arabera, osasun arloko baimena lortzeko jardueraren titularrek aurkeztutako azken dokumentazioa, oraingoan ere, ez zen nahikoa; izan ere, 1998. urteko jarduera legeztatze proiektuaren eranskina aurkeztu zuten berriz ere, eta, oraingoan ez zen sukaldea martxan egongo zela aurrez ikusi; hortaz, lokaleko sukaldea arautu nahi izanez gero, beharrezkoa da dokumentazio osagarria lehenbailehen aurkeztea. Horrez gain, eskatutako neurketa oraindik aurkeztu gabe zegoela nabarmendu zen.

Lehenago aipatutako egoerak ikusita, udal teknikariak aurreko txostenetan azaldutakoa sinatu zuten. Horrenbestez, *"a su juicio, la cocina del local **debería permanecer cerrada** por el riesgo que conlleva a no contar con la correspondiente licencia y desde hace varios años estar ocasionando molestias en la vivienda superior por ruidos y vibraciones."*

14. **Udal arkitektoak hirugarren txostena egin zuten 2013ko martxoaren 22an**; horren bitartez, batetik, jardueraren arduradunei jakinarazi zien Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak berriz ere dokumentazioa osagarria aurkezteko eskatu zuela, lokaleko sukaldea erabili ahal izateko.

Beste alde batetik, aurkeztutako erreklamazio ugarien ondorioz, eta jarduerak modu irregularrean funtzionatzen duela aintzat hartuta, oraindik ez denez



behin betiko arautu, *"se evidencian una serie de afecciones a los vecinos colindantes (ruidos, olores etc.) que pueden ser resueltos de forma cautelar"*. Hala ere, udal teknikariak adierazi du jardueraren arduradunek beharrezko intsonorizazio obrak egiteko epea luzatzeko eskatu dutela, behin betiko arautzeko eta udal ordenantzan ezarritako betekizunak betetzeko.

Adierazi duenez, aintzat hartuta jarduera legeztatu daitekeela, eta orain izapidetze bidean dagoela, jarduerako arduradunek eskatutako epea luzatzeko baimena eman egin da, jarduera legeztatzeko beharrezko intsonorizazio obrak egiteko; horrez gain, **kautelazko neurri gisa leihoak lehenbailehen zigilatze eta aire girotuko ekipoa konpontzeko proposatu zuen**, eskatutako isolamendu maila lortzeko neurri egokiak zirela eta denbora tarte laburrean lortzeko modukoak zirela ulertu baitzuen. Gainera, neurri horiek hartu bezain pronto enpresak homologatutako ziurtagiri bat aurkezteko eskatu zaie jarduera horren titularrei, egiaztatzeko kaltetutako etxebizitzara transmititutako zaraten immisio mailak indarrean dagoen legediak ezarritako gehienezkoa betetzen duela.

15. **2013ko ekainaren 1ean tokia bisitatu** zen, ezarritako kautelazko neurriak betetzen diren ikuskatzeko; **aire girotuko sistema kendu** zela eta sukaldeko **leihoak ez erabiltzeko moduan zeudela** egiaztatu zen, baina eskatutako neurketa ez zen aurkeztu.

Nolanahi ere, txosten horretan ohararazi zenez, *"En conversación mantenida personalmente con los denunciantes, se le ha manifestado al que suscribe que desde Semana Santa no se han reproducido las molestias que hasta la fecha originaba la citada instalación."*

Aitzitik, denbora luze honetan zehar interesdunak udalean hainbat salaketa aurkeztu dituela ere nabarmendu behar da, eta zenbait bilera izan ditu oraindik pairatzen dituen eragozpen larriei konponbide egokia emateko asmoz; bere ustez, halere, ez da inolako erantzunik jaso udal arduradunen partetik.

16. 2013ko abuztuaren 7an, jardueraren arduradunek egiteke zegoen neurketa egin zuten, eta ondorioztatu zutenenez, *"a tenor de los resultados obtenidos a causa del paso de los motores de los ventiladores podemos afirmar que los valores obtenidos son **"favorables"***.

Hala ere, interesduna ez da batere ados agertu egindako azterketarekin. Argudiatu duenez, neurketa horretan lokaleko sukaldeko **kanpai erauzgailuaren motorrak eragindako indize akustikoak** baino ez dira ebaluatzen. Ez da inolako azterketarik egin lokaleko gainerako soinu fokuek eragindako zaratak neurtzeko edo lokalaren isolamendu maila orokorra egiaztatzeko, eta hortaz, bere ustez, ez da nahikoa.

17. **2013ko azaroaren 29an**, azkenik, nahitaezko osasun baimena lortu zen.



Horrez gain, 3/1998 Legea, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorreko 58. artikuluan ezarritakoaren arabera, **abenduaren 19ko udal txostenean** ezarri zen proiektu teknikoari ez zaiola inolako alegaziorik aurkeztu eta, hortaz, ez dagoela oztoporik jarduera legeztatzeko espedientea izapidetzen jarraitzeko.

18. Nolanahi ere, udal arkitektoaren azken txostenean, 2013ko abenduaren 23ko data duen txostenean, hauxe nabarmendu zen: *“como ya se ha indicado por parte del suscrito en varios informes anteriores, **la cocina de este restaurante**, objeto de la medición acústica presentada, **está funcionando desde hace varios años sin la correspondiente licencia y sin cumplir las condiciones mínimas de insonorización, ni ventilación.**”*

*Que en el mismo, sólo se ha tenido en cuenta **la transmisión de ruido que genera un motor de extracción de los gases de la cocina a la vivienda del denunciante, no contemplando el resto de ruidos que genera la actividad de la cocina.***

Que tras revisar dicho informe se puede comprobar que el índice de inmisión de LAeq es de 25,6 dB(A) el cual, aunque cumple el R.D 1367/2007, no cumple con lo establecido en el art 11) de la Ordenanza Municipal sobre Ruidos y Vibraciones donde se especifica que para los ruidos de este tipo el límite está en 25 dB(A) durante el horario de 22:00 y 8:00 h.

Por otra parte, deberá tenerse en cuenta que según la Ordenanza Municipal sobre Ruidos y Vibraciones y la Ordenanza Municipal de Establecimientos de Hostelería y Asimilados, el aislamiento acústico a ruido aéreo de este tipo de locales, con respecto a las viviendas y locales colindantes debe ser de 65 dB(A), lo cual no ha sido justificado por parte de los propietarios.”

19. Hala ere, interesdunak ziurtatu du jarduerak egoera berean funtzionatzen jarraitzen duela, ez dela erregularizatu eta lokalean beharrezko isolamendu obrak ez direla egin.

Gainera, nabarmendu du Getxoko Udalak ez diela aurkeztutako erreklamazioei erantzuten, eta jardueran antzemandako irregulartasunak zuzentzeko aurrez ikusitako jardueren berri ez diola eman.

Aurrekariak ikusita, egokitzat jo dugu ebazpen hau prestatzea, honako ohar hauekin bat etorritz:



Gogoetak

1. Aldez aurretik, Getxoko Udalak erakunde honen errekerimendu eta eskaerei erantzuteko izandako atzerapena agerian utzi nahi dugu. Horrek galarazi du gure eskumenak modu eraginkorrean eta garaiz baliatzea.
2. Gure esku hartzearen xedea Getxoko Udalaren jarduna aztertzea da, jatetxearen jardueraren ingurumen kalitateari dagokionez.
3. Sailkatutako jardueren ingurumen legezkotasuna kontrolatzeko eta egokitzeko administrazio publikoek duten esku hartzerako ahalmena ez da gaitasun kontu hutsa; aitzitik, ordenamendu juridikoak emandako ahalmen publikoak erabiltzean datza, interes orokorraren defentsan eta legeditik eratorritako betebeharrak betetzea bermatzeko.
4. Jardueraren lizentzia antolamendu lizentzia bat da, edo, segidako traktukoa, hau da, tokiko agintek sailkatutako jarduerak ingurumen arloko araudira egokitzen direla kontrolatzea ez da gauzatzen lizentzia ematerakoan; aitzitik, ezarritako neurri zuzentzaileen aldizkako kontrol eta ikuskaritza lanak egin behar izatea eskatzen du, eta, zoritxarrez, gehiegitan, ez da horrelakorik gertatzen.

Hala, horrelako lizentziek interes publikoa babestera bideratutako lotura tinkoa sortzen dutela esan daiteke, baimendutako jarduera baliatzerakoan gerta daitezkeen gorabeheren aurrean.

5. Eskakizun horiei esker Administrazioak ahalmena du baimendutako jardueran proportzionaltasun egokian esku hartzeko, jarduera egiten duenari neurri zuzentzaileak eta egokitzapen neurriak ezarriz, baita ofizioz bada ere, jarduerak zuzen funtzionatzea bermatzeko edo, azken buruan, emandako baimena baliogabetzeko, interes publikoko eskakizunetara egokitzeko aukera guztiak agortu direnean; izan ere, hori ez egitea zaintza, segurtasun, elkarbizitza eta ordena publikoari dagozkion betebeharrak nagusiak ez betetzea izango litzateke.
6. Agerikoa da horrelako establezimenduetan, jarduerak ez badu araudi tekniko-juridiko egokia betetzen, gatazka larriak sor daitezkeela, eta sortzen dira, haien lokaletan negozioa martxan izan nahi duten titularren interes partikularren eta interes orokorraren artean (establezimendu horien inguruan bizi diren bizilagunen intimitaterako eskubidearekin identifikatutakoa).
7. Getxoko ostalaritza establezimenduei buruzko udal ordenantzak ezarri zuen jarduera funtzionamenduan jartzeko **neurri zuzentzaileak** ezarri beharko direla ingurumen kalitate egokia bermatzeko eta ondoren **irekiera lizentzia**, betetzea zuzen bermatzeko.



Ingurumen kontrola aurretik egiten da; izan ere, ingurumenean sor daitezkeen kalteak ebaluatu egin behar dira, baita pertsonen osasunean eragin ditzakeenak ere, horrela, beharrezko prebentzio neurriak aplikatze aldera. Egia da horiek betetzen direla justifikatzeko betebeharra jardueraren titularrari dagokiola. Hala ere, **ingurumenari dagokion kontrola** ez da mugatzen jarduera bat hasteari; aitzitik, zuzen garatzeko, aurretiaz ezarritako ingurumen kalitatearen helburuei dagokienez jarraipena egin behar da eta horren gaineko eskaera ere egin behar da.

Ordenantzak berak zehaztu duenez, ez da inola ere ez baimenduko taldez aldatzea, ez eta instalazioak handitzea ere, **horretarako nahitaezko udal baimenik gabe**, betiere erabilera eta baliatze baldintzak egokitzea bermatzen bada; hala badagokio, **beharrezko sektore lizentziak eta baimenak** eduki beharko dira. Horrez gain, testu horretako 12. artikulua adierazi zuen martxan jarri aurretik udalak nahitaezko baimena eman beharko duela, aldeko egiaztatze akta eman eta gero.

8. Horrenbestez, argi dago jarduera arautzeko eskakizuna udalaren eskumena dela, baita hala ezarri den jardueretan ikuskapen eta kontrol lanak egitea ere.

Hortaz, administrazio publikoaren jarduera irregularra ezin da ukatu jakitearen gainean egotea argudiatuz, kasuan kasuko tasa ordaindu arren.

Bidezko konfiantzaren printzipioak ez ditu betetzen lizentziarik gabe egiten diren jardueren kasuak, nahiz eta udala jakinaren gainean egon eta nolabait jarduera hori errespetatu (Auzitegi Gorenaren 2002ko apirilaren 22ko, maiatzaren 8ko eta maiatzaren 27ko Epaiak).

9. Gogoratu behar dugu administrazio baimenik ez duten edo behar bezala araututa ez dauden jardueren kasuan legediak esku hartzeko betebeharra ezartzen duela, egokitzea eskatzeko, udal aginteak jarduera partzialki edo behin betiko ixtea aurrez ikustea barne, jarduera zuzen legeztatzen ez bada, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean xedatutako prozeduraren arabera.
10. Kexa honetan agertutako egoeraren parekoak saihesteko, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrak 65. artikuluan xedatu zuen dagozkien zigoren kalterik gabe, alkateak jarduera batek beharrezko lizentziarik gabe eta beharrezko betekizun teknikoak bete gabe funtzionatzen duela jakiten duenean, titularra errekerituko duela jarduera legeztatzeko, gehienez **sei hilabeteko epean**.
11. Aipatutako ordenantzan ezarri ziren establezimenduek bete behar dituzten eskakizun teknikoak, sukalde erabilera baimenduz gero, eta, bereziki, **izan behar dituzten aireztapen sistemak**. Horrez gain, horrelako jarduerak bete beharreko intsonorizazio maila 65DB(A) dela ere ezarri zuen. Betiere hirugarrenei kalte egitea saihesteko asmoz.



Azaldutako aurrekarietan frogatu den bezala, lokalak ez du intsonorizazio maila hori. Horrenbestez, argi dago zarata eragozpenak eragiten dituen **sukaldeko erauzgailuak** ez ezik, jarduera honen berezko beste soinu iturri batzuek ere kalte nabarmenak eragin ditzaketela alboko auzokideen artean, esaterako bezeroekin dituzten elkarrizketek, materiala arrastatzeak, edota funtzionatze aldera lokal hauetan instalatzen diren makinek.

Horrez gain, horrelako establezimenduetara sartzeko ate eta leiho guztiek uneoro itxita egon behar dute, eta irekitzea ezinezkoa izan beharko litzateke ostalaritza lokaleko bezeroentzat.

Kanpoan bidioiak jarritz gero, bidioiek ere beharrezko baimena jaso behar dute, eta arauz ezarritako ordutegietara egokitu beharko dira.

12. Ulertzen dugunez, establezimendu baten isolamendu akustikoko arazoak konpontzen diren bitartean, eta artean zehapen espedienteak hasteko aukera mugatu gabe, higiezin mugakideetako auzokideei kalteak eragitea saihestera bideratutako beste salbuespen neurri batzuk hartu behar dira. Jakin badakigu horrelako neurriak proportzionaltasun tekniko eta ekonomikoari dagozkien irizpideekin bat etorritu behar direla, horrelako jarduerak egiten dituzten pertsonentzat.

Hala ere, behin-behineko hartzen diren edo hartu beharko liratekeen baldintzak, kasu honetan gertatu den moduan, etengabekoak bihur daitezke, eta are larriagoa dena, ez dute saihestu bizilagunek indarrean dagoen legediak ezarritako mugen gaineko soinu immisio mailak jasan behar izatea.

13. Kasu honetan gertatutako egoerak ikusita, alde batetik ondorioztatu da lokaleko arduradunak erresistentzia nabarmena agertu duela jarduera legeztatzeari dagokionez; bestetik, udal jarduera falta ere ondorioztatu da, jarduera behin betiko arautzeko eskatzeari dagokionez; horrek, argi eta garbi, lizentzien teknikak zehaztu duen prebentzio printzipioa hausten du.
14. Tokiko entitateek ezin dute inolaz ere ingurumenerako kaltegarriak diren egoeretatik aldendu edo urrundu, pertsona edo ondasun zehatz batzuegan kalteak eragitea itxaronez, ez eta espedienteak luzatu ere, lokaleko arduradunak jarduera legedira moldatuko duela itxaropen eta oinarri gisa hartuz.
15. Ildo beretik, Auzitegi Konstituzionalak eman duen doktrina berrienak zehaztu du hemen hizpide dugun jarduerak eragindako ingurumen kalteen gainean Administrazioak izan duen tolerantziak eta adostasunak, kalteek pertsonen osasuna arriskuan jartzen ez badute ere, osotasun fisiko eta moralerako oinarritzko eskubideak (15. art. CE), intimitate pertsonala eta familiarra (18.1 art. CE) eta etxearen ukiezintasuna (18.2 art. CE) kaltetzea dakarrela.



Horrez gain, hauxe ere zehaztu zuen: *“la finalidad de las medidas provisionales o cautelares no sólo es asegurar la eficacia de la sanción que pudiera recaer, sino también evitar el mantenimiento de los efectos de la infracción o, si se prefiere, que persista la situación lesiva denunciada.”*

Horregatik, tokiko entitateek eskubide horiei kalterik ez eragitea bermatzeko beharrezko babes neurriak hartu behar dituzte.

16. Orain arte azaldutakoa ikusita, Ararteko erakundeak ondorioztatu du ezin dela jarduera horren funtzionamendu irregularra denbora gehiagoz baimendu eta errespetatu, eta indarrean dagoen legediaren arabera Getxoko Udalari dagokio egora hori saihesteko erantzukizun zuzena. Aipatu dugun moduan, hizpide dugun kasuan aplikatu beharreko araudiak ezarri du berau betetzea partikularrei ez ezik administrazioari berari ere badagokiola; izan ere, legezkotasun printzipioak botere publikoen jarduera guztien berri eman behar du.
17. Ezin da ukatu instalazioak zaindu eta kontrolatzeko jarduerak betetzea zaila dela; ildo beretik, gure ustez, oreka bilatu behar da merkataritza eta zerbitzu jarduera oparo bat martxan izatearen eta bizilagunen eskubideen artean, hau da, atsedean hartzeko eskubidea eta kalitatezko ingurumenaz gozatzeko eskubidea, zarata eragozpenik gabe. Kasu horretan, argi dago, azaldutako aurrekarien arabera, baieztatu daiteke oreka eta proportzionaltasun hori ez dela existitu, eta, are gehiago, argi utzi da jarduera irregular baten aurrean erabateko tolerantzia izan dela duela hogeit hamar urte baino gehiagotik hona; eskaerak eginda ere, ez da beharrezko legezkotasuna gauzatu, eta auzokide erreklamaziogileei eragindako eragozpen ugariak ez dute etenik izan.

Nolanahi ere, Getxoko Udalak beharrezko errekursoak eta prozedurak bideratu behar ditu establezimendu horretatik gertu bizi diren pertsonen eskubideak zuzen betetzea lortzeko. Izan ere, jarduerak ezin du bizilagunen lasaitasunean eragozpenik sorrarazi.

18. Azkenik, kexa aurkeztu duen pertsonak igorritako oharrak aintzat hartuz, gogoratu behar da udal horri bidalitako komunikazio guztiek, gertaera zehatz batzuei badagozkie eta edozein jarduera edo instalazioren hirigintza edo ingurumen kontrolak ez betetzea salatzen badute, orduan salaketa gisa sailkatu behar direla, eta organo eskumendunera igorri behar dira, dagokion izapidetzea egiteko.

Salaketek, hirigintza eta ingurumen legezkotasunaren defentsaren arloan existitzen den ekintza publikoaren jardunean, administrazio espediente bat izapidetzea ekarri behar dute, hirigintza eta ingurumen legediaren araberrako baldintzetan, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 legean ezarritako arauekin bat etorriz.



Azaldutako guztia ikusita, eta otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11.b. artikuluan ezarritakoaren arabera, honako gomendio hau igorri behar da:

GOMENDIOA

Euskal Herriko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 65. artikulua dela bide, eta dagozkion zehapenak gorabehera, (...) jatetxeko titularrari honakoa eskatuko zaio:

- Jarduera behin betiko arau dezan, eta beharrezko intsonorizazio obrak egin ditzan; sei hilabeteko epea emango zaio, eta ezingo da hori baino gehiago luzatu.
- Horrez gain, arautze prozesuak irauten duen bitartean eta aurretiaz interesdunari entzunaldia eskaini ondoren, jarduera itxi egingo da, edo, bestela, auzokideei eragozpenak sorrazten dizkieten elementuak kendu egingo dira (sukaldea, etab.), salatzailearen eskubideak zaintzeko.
- Kexagileak aurkeztutako salaketei dagozkien izapidea eman diezaien.